

# **TERMINOLOGIA, ITZULPENA ETA DISKURTSO JURIDIKOA: EUSKARAREN KASUA**

*EUSKARA JURIDIKOAREN MINTEGIA*

Deustuko Unibertsitatea

1. Sarrera
2. Hasierako baldintzak
3. Lan terminologikoa
  - 3.a. Fitxa terminologikoa
  - 3.b. Baliokideak emateko irizpide nagusiak
4. Terminologia eta diskurtsoa nola uztartu: ondorioak

## **1. SARRERA**

Beste jakintzagai askotan bezalaxe, berria eta, neurri handi batean, jorragabea ere izan da oraintsu arte euskara zeregin juridikoetan. Azken urteotako ekimenek, oster, bideratu egin dute, nola edo hala, euskararena lege autuetan. Horretarako, lanabesak sortu behar dira, mundu juridikoaren bihurrietan makulu edo euskarri sendoak izateko.

Lanabes horien artean, aipatzekoak dira lege, doktrina zein epaitza testuen euskarapenak, hain zuzen ere, inguruko beste hizkuntzetan egiten dena (eta Euskal Herrian, ez ahaztu, aginduzko duguna) gure moldeetan emateko balio dutenak.

Moldagintza horretan, hala ere, ahalegin anitzak izan ditugu aspaldi honetan. Menturaz, aniztasun horretan larregikeria zabaltzeko tenorea ere soma daiteke sarritan, batetik bestera gertatzen diren desberdintasunak ikusita.

Bide horretan, nolahi ere, oinarritzko premia batzuk ikusi zituen gure mintegiak eta horiei ekin zien gogotik, Deustuko Unibertsitatearen Euskal Ikaskuntzen Institutuaren babespean. Oinarritzkoen artean genuen, berriz diogu, Zuzenbide ikasketak tartean direla—eta bertoko ikasleentzat euskarazko materialak eskuratzea, horrela euskara idatzia eta ikasgai berriak bateratzeko jitean geundela.

Lanaren xedeak, beraz, ikaslearentzat zuen norabide nagusia; maila berean ere, Zuzenbidean diharduen profesional hori aintzat hartu nahi zuen horrek, euskararen ahozotasuna hautsiz testu idatziaren presentziarekin. Horrekin batera, diskurtso juridikorako ateak zabaldu nahi zituen ahalegin horrek, bi osagai elkarrekin adostuz eta jorratuz, hau da, terminologia eta idaztankera parez pare kokatu eta, joko horretatik, egun euskaratze hutsa dena ustezko (ametzeko?) bihar batean diskurtso autonomo bilaka dadin.

## 2. HASIERAKO BALDINTZAK

Hasieran zer geneukan solastatu beharrean gaude. Labur zurrean, honakoak ziren lanaren hastapeneko baldintzak:

2.1. Eskuliburuak genituen eskura. Hortaz, doktrinak (hots, idazle jakin batzuek) sorturiko testugintzaz geniharduen. Legea bera, juridikoa den osoaren *bizkarrezur* hori, ez zen abiapuntua. Hala jokatuz, jakinaren gainean geunden doktrinaren hizkera neurri handi batean lege hizkeraren gaineko metahizkera genuela. Edonola ere, doktrinaren hizkera horrek, jakina denez, baditu, atxiki eta lotu, legearen nahiz epaitzaren esanak, esamolde eta autuak. Bistakoak genituen, ondorenez, WROBLEWSKYk (1988: 13–27) hizkera juridikoaren inguruan markatutako ildoak. Dena den, eta salbuespen gisa, legegileak zuzenean egindako testurik ere itzuli izan dugu, alegia, Zigor Kodea.

2.2. Eskuliburuak, bigarrenez, antolakuntza juridiko zehatz baten eramaile genituen. Espainiako lege, manu eta abarrak ziren gure kontuak. Haatik, Zuzenbidearen itsas zabalean bi ur bereizi finkatu genituen helburu gisa, betidaniko zuzenbidearen adar nagusi izan direnak, alegia, Zuzenbide pribatua eta publikoa, biok besarkatzeko asmotan. Zuzenbide pribatuaren alorretik, Zuzenbide zibila eta Merkataritzako zuzenbidea nahi genituen euskaratu, bertoko dogmatika juridikoa gureganatuz. Zuzenbide publikoan, aldiz, egun bizi–bizirik dugun Administrazio zuzenbideaz landa, Zigor zuzenbidearen euskaratzeari ere ekin genion, beroriek baitira, zalantzarik gabe, azken urteotako kezka eta arranguren ardatzak. Esan gabe doa, alabaina, bi adar horiek *osotasunean* euskaratzen zirela, euren horretan sortzen diren harremanen sare konplexua proiektuaren barruan sartu ahal izateko.

Honetan ez dugu besterik egin Kode Zibilak aldarrikaturiko antolakuntza juridikoaren batasuna babesleku hartzea baino. Lerro beretik joan eta etorkizuneko beste alor juridiko batzuetan oinarriak jarri nahi izan ditugu.

Bada, halaber, itzultze lan honetan bestelako ñabardurak egiteko beharra. Izan ere, itzultze juridikoaren lana gero eta kulturari atxikiago ikusten den horretan, baten bat ohartu da dagoeneko lan honek Espainiako sistemarako izan dezakeen lerraketa gehiegikoaz. Horren deskarguan ere, hurrengo datua aipatu behar: Espainiako Zuzenbidearekin batera, Euskal Herriko zuzenbideak ere, Nafarrokoa barne, euskaratu dira, orain arte ezagutu dugunari *plus* hori erantsiz.

2.3. Bada, hirugarrenez, hizkuntzen arteko distantzia azaldu beharra. Azaldu beharra eta konpondu beharra, euskara–gazelania tartean egon daitekeen jauzia areagotu baitaiteke hizkera juridikoaren moduko hizkera bereizi baten baitan.

Tartea ez ezik, langintza horretan nabarmena izan zaigu tresna laguntzaileen gabezia ere. Maila orokorrean ohiko hiztegiak izan ditugu eskura eta maila juridikoan, berriz, UZEiren lana eta Bizkaiko Foru Aldundiarena izan dira gure gidariak.

Hemen ere, Euskaltzaindiak esku artean darabilena ez da izan ahaztekoa. Normaldu ahala, Euskaltzaindiak emandako arauak errespetatzen ahalegindu gara.

Horrek etengabe behartu gaitu gure irtenbideak berrikustera; sarri askotan, berregintza horretan jardun dugu, aurretiaz onarturiko horrek bere akats eta ajeak erakutsi dizkigun guztietan batik bat.

2.4. Azkenik, badago esan beharrekorik itzultze lan horretan aritu diren «horiei» buruz. Juridikotasunaren bila joanda, gure jomuga izan da lankidetzaz bultzatzea. Hala asmatu zen eta hala egin da lana, testu bakoitzaren gainean jokatu baitute legelari zein

itzultzaileek; gerogarrenean, beti ere, bizpahiru irakurketa eta zuzenketa eginez lankidetzan sorturikoaren gainean.

Berrikitan irakurri ahal izan duguna genuen ihesbide. Izan ere, bada bazterretan, arrazoi osoz gainera, jarraikoa idazteko balentria eta atrebentzia izan duena:

*Euskararen egungo egoeran, kontuan izan behar da testu administratiboan irakurle bakarrak askotan zuzentzaileak direla. Orduan, euskal hiztunen komunitatearen ordezkari modura jokatzeko tokatzen zaie zuzentzaileei, hartzaile izango bailiren ebaluatzea testu itzuliak. Nolabait esan, komunitate horren kontzientzia izan behar dute. Ondorioz, euskaldunen komunitateak arrazoi batzuk edo besteak direla medio presio indar gutxi duenez gero euskara ereduarekiko, zuzentzaileak erabili beharko du presio indar hori. Gutxienezkoa ziurtatu beharra dago, hots, hizkeraren naturaltasuna, beti ere formaltasun graduaren arabera. (AGUIRRE, 1997: 116)*

Kontrara, bada besterik ere esan duenik:

*Askok diote ez dugula inorentzat itzultzen, euskarazko alderdia irakurtzen ez da eta. Beste batzuek, berriz, badiote geroago eta jende gehiago hurbiltzen dela euskarazko testuetara informazioa jasotzeko. Egia esan, bigarrenera bidean gabiltzala uste badut ere, artean arazo izugarriak ditu euskal irakurleak Administrazioako testuak irakurtzeko. (LOBERA, 1997: 83).*

Gurean, beste behin ere diogu, bigarrenarena izan da jomuga, lehendabizikoarena baino. Irakurleak ikasle eta profesionalen esparruan jarri ditugu, hizkuntza normalizatueta logiko eta ohiko dena gurean ere bermatu nahian, bakoitzari dagokion lana azpimarratuz.

Bukatzeko ere, horra hor gure asmoa: lankidetzeta eta elkargintza, bai; Zuzenbidea eta hizkuntzalaritza (itzultze teknikoak) ere bai, beti ere, ahaztu gabe norentzat sortzen den eta nortzuk dituen helburu prozesu horrek, alegia, Zuzenbidearen mundua eta bertoko jarduleak.

### 3. LAN TERMINOLOGIKOA

Esan legez, jokoan zegoen lehen irizpidea terminologiarena zen. Terminologia egokia erabili beharra zegoen, hizkera juridikoaren nondik norakoak azaltzeko. LERAT (1994: 25–26) idazleak baieztatu duenez, hizkera bereziak oinarrian hizkera idatzia du eta testu horren terminologia da ezaugarriarik nabariena.

Terminologia horretan, zeresanik ez, hizkuntzen arteko baliokidetasunak dira nagusi. Horretan ere, itzultze juridikoaren apartekotasuna. Esana dugu lehen ere, Zuzenbidearen inguruko itzultzea hizkuntzen artekoa baino gehiago, sistema juridikoen artekoa dela.

Sistema juridiko horiek estatu bati atxiki zaizkio eta, ondorioz, sistema juridikoen eta terminologia desberdinen arteko gorabeherak sortzen dira (SARCEVIC, 1997: 229).

Euskal Herriaren egoerari gagozkiola, gogoratu behar dira, terminologiagintzan hasi baino lehenago, Zuzenbide eta hizkuntzen arteko tirabirak. Hegoaldean, adibidez, sistema juridiko nagusi baten aldamenen baditugu bestelakoak (Foru zuzenbidearen sistemak). Horien guztien adierazpidea betidanik izan da gaztelania eta, ondorenez, sistema horien eduki osoa eman behar da euskaraz, euskarak berak juridiko den «hori» behar den moduan bereganatzea (URRUTIA, 1994: 1279–1298).

#### 3.a. Fitxa terminologikoa

Hizkuntzen arteko baliokideak bilatzea ez da erraza eta, are gutxiago, hizkuntza horiek karga juridikoa eraman behar dutenean. Horretarako tresna, ohi legez, fitxa terminologikoa izan dugu.

Fitxa hori hamaika atal nagusitan banatu dugu, azpiatal adierazgarri batzuk ere tartean izan ditugula, jarraian azalduko dugunez:

### 1. Terminoa

Atal horretan jaso dira gaztelaniazko testuetatik hustu ditugun termino eta esamolde juridikoak.

### 2. Espezialitatea

Atal horretan zehaztu da Zuzenbidearen adarretatik zeini dagokion kasuan kasuko terminoa edo esamoldea. Jorragai izan ditugun adar juridikoak honakoak dira:

Administrazio zuzenbidea: Adm zuz  
 Merkataritzako zuzenbidea: Merkat.zuz  
 Zigor zuzenbidea: Zigor zuz  
 Zuzenbide zibila: Zuz zib  
 Zuzenbide orokorra: Zuz oro (bertara bildu ditugu Zuzenbidearen adar guztietan azal daitezkeenak)

### 3. Testuingurua

Atal horrek jaso du termino edota adierazmolde bakoitzari dagokion ingurumaria (gehienez jota, 255 karaktere).

### 4. Saila

Atal honetan jasotako zenbakiak kode batzuk besterik ez dira eta, euron bitartez, terminoa edo esamoldea non aurkitu dugun jakin daiteke. Fitxa bakoitzeko, kodeak honetara finkatu ditugu:

*Lehenengo zenbakia.* Horren bidez, lan-taldea identifikatu dugu:

- 1: Administrazio zuzenbideari dagokion lan-taldea
- 2: Zuzenbide zibilari dagokion lan-taldea
- 3: Merkataritzako zuzenbideari dagokion lan-taldea
- 4: Zigor zuzenbideari dagokion lan-taldea

*Bigarren zenbakia.* Horren bidez, lan-talde bakoitzak itzuli dituen eskuliburuak zehaztu dira:

Administrazio zuzenbideari gagozkiola:

- 1: Derecho administrativo I. Parte general. Egilea: Ramón Parada Vázquez. Argitaletxea: Marcial Pons (Madril, 7. argitaraldia, 1994).
- 2: Derecho administrativo II. Organización y empleo público. Egilea: Ramón Parada Vázquez. Argitaletxea: Marcial Pons (Madril, 10. argitaraldia, 1995).
- 3: Derecho administrativo III. Bienes Públicos. Derecho urbanístico. Egilea: Ramón Parada Vázquez. Argitaletxea: Marcial Pons (Madril, 5. argitaraldia, 1993).

Zuzenbide zibilari gagozkiola:

- 1: Derecho civil. Parte general. A. López, V. L. Montés (koord.). Argitaletxea: Tirant lo Blanch (Valentzia, 2. argitaraldia, 1995).
- 2: Derechos reales y derecho inmobiliario registral. Ángel M. López y López, Vicente L. Montés Penadés (koord.). Argitaletxea: Tirant lo Blanch (Valentzia, 1994).
- 3: Derecho de obligaciones y contratos. M<sup>a</sup>. R. Valpuesta Fernández (koord.). Argitaletxea: Tirant lo Blanch (Valentzia, 2. argitaraldia, 1995).
- 4: Derecho de familia. V. L. Montés, E. Roca (koord.). Argitaletxea: Tirant lo Blanch (Valentzia, 2. argitaraldia, 1995).
- 5: Derecho de sucesiones. F. Capilla, A. M. López, E. Roca, M<sup>a</sup>. R. Valpuesta, V. L. Montés (koord.). Argitaletxea: Tirant lo Blanch (Valentzia, 1992).

Merkataritzako zuzenbideari gagozkiola,

- 1: Derecho mercantil. Egilea: Rodrigo Uría. Argitaletxea: Marcial Pons (Madril, 1996).

Zigor zuzenbideari gagozkiola,

- 1: Zigor kodea. Argitaletxea: Civitas (Madril, 22. argitaraldia, 1996).

*Hirugarren zenbakia.* Lan-talde eta eskuliburu zehatz horretan gaudela, hirugarren zenbakiak adierazi du zenbatgarren gaien dagoen termino edota adierazmolde hori.

*Laugarren zenbakia.* Azkenekoz, zenbaki horrek orrialdearen zenbakia identifikatu du.

#### 5. Erregistro zenbakia

Atal honetan zenbatu besterik ez ditugu egiten fitxak.

#### 6. Jasoketa data

Atal honetan, hustuketaren data adierazi dugu, batzuetan gerta daitekeelako itzulpena atzeratu beharra izatea (adibidez, beste hiztegi batzuk kontsultatzeko, norbaiti zalantzaren bat galdetzeko...).

#### 7. Esanahia

Terminoaren edo esamoldearen esangura dago jasota atal horretan.

#### 8. Euskarazko baliokidea

Atal honetan agertzen da guk zein esamolde edo termino erabiliko dugun euskaraz, gaztelaniazkoa itzultzeko. Guk erabiliko dugun hori letra larriz agertzen da. Letra txikiz agertzen dira, ordea, beste baliokide batzuk; horiek hiztegi desberdinetan aurkitu ditugu, baina gure iritziz ez dira egokiak kasuan kasuko termino edo esamoldea itzultzeko. Atal honetan ere, kode batzuk azaltzen dira, euskarazko baliokideak nondik atera ditugun identifikatzeko. Kode berberak erabiltzen ditugu termino edota esamoldearen esanahia finkatu behar denean ere. Kodeok jarraikoak dira:

*Lehenengo zenbakia.* Zenbaki horrek hiztegia adierazten du eta guk gehien erabili ditugunak hauexek dira, gutxi batzuk aipatzearren:

- 1: Bizkaiko Foru Aldundiaren hiztegia (gaztelania–euskara)
- 2: UZEI zuzenbidea
- 4: Sinonimoen hiztegia (Adorez, 3)
- 5: Europa hiztegia

- 6: Diccionario básico jurídico Comares
- 8: Mujikaren hiztegia (1. argitaraldia)
- 16: Euskera Legebidean (Andres Urrutia)
- 20: Gure iritzia (inon aurkitu ez ditugun terminoetarako)
- 21: Egunkariaren estilo liburua
- 23: Munduko lekuen izenak (Elhuyar)
- 26: Izen ofizialen zerrenda (Euskaltzaindia)
- 38: Erromako Eleizaren Araudia (A. Ipólito Larrakoetxea)
- 47: Hizkera argiaren bidetik (IVAP-HAEE)
- 54: Famili Zuzenbideko Formularioak (Gipuzkoako Abokatuen Kolegioa)
- 55: R. M<sup>a</sup>. de AZKUE Diccionario Vasco-español-francés EUSKALTZAINDIA
- 56: Zuzenbide konstituzionala I. Bolumena UPV-EHU
- 58: Euskaltzaindiaren Erabakiak
- 60: Hirigintza hiztegia EUSKALTERM. UZEI
- 62: FINANTZAK hiztegia- UZEI
- 63: ENPRESA hiztegia-UZEI
- 64: ELHUYAR hiztegia
- 65: 3000 hiztegia
- 66: Eraikuntza hiztegia, UZEI
- 67: Hirigintza hiztegia, UZEI
- 70: Euskaltzaindiaren Burtsa Hiztegia
- 71: Ekonomia hiztegia, UZEI
- 72: Banku hiztegia, BB (Banco de Bilbao)
- 73: Banka hiztegia, Donosti aurrezki kutxa
- 75: Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegia
- 76: Argiro idazteko proposamenak eta ariketak (IVAP)

*Bigarren zenbakia.* Horrek orrialdearen zenbakia adierazten du.

#### 9. Aholkulariak

Zalantza kasuetan norbaitengana jo behar izan dugunez gero, horren aipamena egiten dugu kasuan kasuko fitxan.

#### 10. Itzultzailea

Atal honetan agertzen da nork egin dituen hustuketa eta itzulpena.

#### 11. Itzulpen data

Atal honetan itzulpenari dagokion data azaltzen da, alegia, ikerketa eta eztabaidak egin eta gerokoa.

Ulerbidez, ikus *depositante* terminoaren inguruko fitxa (1. eranskina).

### 3.b. Baliokideak emateko irizpide nagusiak

Gaztelaniazko kontzeptuak euskarazko baliokide bakarra duenean, ez dago inolako arazorik. Zernahi gisaz, maiz-sarri, euskaraz hitz bat baino gehiago erabiltzen da gaztelaniazko kontzeptu bakarra adierazteko. Adibidez,

- Régimen*: erregimen, jaurpide, eraentza, araubide
- Proyecto*: proiektu, egitasmo
- Proposición*: proposamen, salo

Itzultze arazoak areagotu egiten dira, gaztelaniazko hitz bakar batek bi adiera baino gehiago duenean. Esate baterako,

—*Derecho*  
Zuzenbidea/eskubidea

—*Real*  
Derecho real/eskubide erreal  
Real decreto/ Errege Dekretua  
Situación real/egiako egoera

—*Acción*  
Ekintza/akzio

—*Obligación*  
Betebehar/obligazio

—*Administración*  
Administrazio/kudeaketa

Alderantzizkoa ere gerta daiteke, alegia, gaztelaniaz hitz bat baino gehiago izatea, kontzeptu bera adierazteko. Ulerbidez,

- Pignorar/dar en prenda*: bahi moduan ematea
- Autorización/permiso*: baimena
- Pacto de retro/pacto de retroventa/a carta de gracia*: atzera-erosteko edota atzera-saltzeko ituna

Gainera, segurtasun juridikoari zor zaion zehaztasunak berez dakar hitz teknikoak ondo finkatu beharra, nahiz eta hizkera arruntean batzuk eta besteak baliokide gisa erabili.

Beste horrenbeste gertatzen da fitxa terminologikoaren osagarri diren arbola edo zuhaitz semantikoak zehazterakoan. Horren inguruan, bi adibide jarri izan ditugu lan honen 2 eta 3. eranskinetan.

Izan ere, jakina da, eta ezaguna ere, non dagoen kontratu edo egintza juridikoen eragingabetasun zein eragingarritasuna. Bi horiek, bestalde ere, maila eta alor desberdinetakoak izan daitezke. Horrexegatik, loturik eman behar dira maila eta alor horiek guztiak, sistema juridiko bakoitzak duen barne koherentzia gordetzeko, jatorrizko hizkuntzatik xede-hizkuntzara pasatzerakoan.

Halaber, badira sistema juridiko bakoitzean erakunde bereziak, eta erakunde horien funtzionamendua osotasunean hartu behar da. Adibide gisa ematen da 3. eranskinean Jabetza Erregistroaren ingurukoa, bertan egin daitezkeen idazpen mota guztiak nola zehaztu diren ulertu ahal izateko, kontutan hartuta idazpen mota horiek ondorio mota desberdinak dituztela kasuan-kasuan.

Areago oraindik, gaztelaniazko hitz batek adiera berezia izan dezake hizkera juridikoan, eta gerta daiteke hori ez egotea inon dokumentatuta. Adibidez,

- Heredamiento/heredante* (Kataluniako Zuzenbidean araututako erakundea): jaraunsletza/jaraunsletza-emailea
- Derecho expectante de viudedad* (Aragoiko Zuzenbidean araututako erakundea): alarguntasunaren ziozko eskubide-igurikimena
- Fideicomiso de residuo*: hondakinaren gaineko fideikomisoa
- Mercado de opciones y futuros*: aukera eta etorkizuneko merkatua

Arazorik garrantzitsuenak horiek izanik, euskarazko baliokideak aukeratzeko erabili ditugun irizpide nagusiak jarraikoak dira:

1. Euskarazko hitzaren eta maileguaren artean, orokorrean euskarazko hitzaren alde egin dugu. Zenbait kasutan, eta ulergarritasun nahiz argitasunaren mesedetan, euskarazko hitza lehenengoz agertu izan denean, horren ondoan mailegua edo azalpena jarri dugu (deserdirapena edo deszentralizazioa/nahierarakoa edo arbitrarioa/burubabesa edo norik bere burua babestea); hurrengoetan, ostera, euskarazko hitza bera bakarrik agertzen da.

2. Aitortu beharra dago, dena den, inoiz mailegua aukeratu izan dugula, horrek erraztasun gehiago ematen duelako eratoritze jokoak egiteko (berbarako, testamentu eta ordeinuaren artean, aurrenekoa aukeratu dugu, gero *testamentaría* eta *testamentifacción* itzultzea errazago gertatzen delako).

3. Euskarazko hitzen artean aukera egiteko, kontutan hartu behar da nahitaez hitz horiek zein harrera duten erabiltzaileen artean, hau da, zeintzuk diren zaharrenak eta zabalduenak (hala nola, *Administración* itzultzeko euskaraz badira bi hitz gutxienez: administrazio eta ardulararitza; zalantzarik gabe, guk lehendabizikoaren alde egin dugu).

4. Hitz berriak sortzeko beharrea gaudenean, honakoak ditugu abiaburu:

- a) Hitz berri hori hizkuntza–sistemaren barruan sartzeko modukoa izatea eta sistema horrekin bat etortzea.
- b) Semantikaren ikusmiratik, hitz berria zehatza izatea eta beste termino batzuk eratoritzeko gai izatea.
- c) Erabiltzaileen artean nolabait hedaturik egotea.

Aurrean esandako horren adibidea ikus dezakegu egunerokoan legelariak erabiltzen dituen kontzeptu ohikoetan. Har ditzagun, berbarako, ondasunen arteko gorabeherak. Espainiako Kode Zibilaren arabera, eta doktrinan jakinekoa denez, bi kategorია nagusi ditugu ondasunen artean: ondasun higiezinak eta ondasun higikorrak (*bienes inmuebles* eta *bienes muebles*, hurrenez hurren). Azpikategoriak ere egin daitezke horren barruan eta, zer esanik ez, horiek nahasi beraien artean. Hala ere, euskararen baitan, eta Foru zuzenbidearen eraginez, beharrezkoa dugu bestelakorik ere ematea, hala nola, tronkoaren aldetiko ondasunak. Horretarako aukeratu zen aspalditik onibar hitz zaharraren adiera. Horrela dago jasota UZEiren hiztegian eta modu berean erabili izan dugu guk ere, Zuzenbidearen errealitatea Euskal Herrian bizi dugun Zuzenbidearen errealitate osoari konponbidea eman nahian.

#### 4. TERMINOLOGIA ETA DISKURTSOA NOLA UZTARTU: ONDORIOAK

Labur zurrean esanda, terminologiak hizkera juridikoan pisu handia duela ezin uka. Edozein modutan ere, beste arlo batzuk ere erabakigarriak dira, hizkera bereizi horretan zinezko hizkera juridikoaz hitz egiteko. LERATEK (1994: 25–26) azaldu izan du hori, hizkera bereizi horretan morfojoskerak, enuntziazioak eta fraseologiak duten zeregina azpimarratzerakoan, semantika bera ahanzteke. Horrexegatik, behar–beharrezkoa da terminologiaz kanpo ere, euskarazko hizkera juridikoak beste horiek, hau da, morfojoskera, enuntziatio eta fraseologia berezi horiek, betetzea.

Lan horretan, bost printzipio azaltzera bakarrik ausartuko gara:

4.1. Lan terminologikoa, hain zuzen ere, oraindik orain egiten ari dena, lotu beharrezkoa da testugintzan erdietsi nahi den tankera juridiko horrekin, neurri handi batean terminologia horrek baldintzatzen dituelako diskurtso posible horren nondik–norakoak.

4.2. Hizkera juridiko propioaren bila joan ahal izateko, euskarak oinarrian izan dezake itzulpena, oraingoz bederen, baldin eta itzulpen horrek betetzen baditu sistema juridikoen arteko jauziak uztartzeko baliabideak. Horrek berez dakar sistema juridiko osoa aintzakotzat hartzea, zatika egindako lana alferrekoa eta antzua izan baitaiteke.



4.3. Osotasun bera eska dakioko xede-hizkuntzaz, alegia, euskaraz sorturiko testuari, batez ere, testu horrek, lehen maila batean behinik behin, diskurtso autonomoaren hasiera izan nahi badu.

4.4 Horrek nahitaez igortzen gaitu barne koherentziaren autura, bai itzulpen prozesuan, baita testu itzulian ere. Koherentzia hori, bestalde, ez da soilik eskuratzen gramatikalitatea zaintzearen poderioz, beharrezkoa baita, era berean, itzuliaren bitartez sorturiko sistema bera, koherentea izateaz gain, erabilgarri eta sinesgarri izatea.

4.5. Lan horretan, bukatzeko, LERATen hitzak gogoratu behar:

*Es comprensible que en estas condiciones la traducción sea cada vez más asunto de especialistas de la disciplina o de la actividad más o menos bilingües. Ellos son, desde el punto de vista de la lógica del texto, los mejores jueces, y además nadie mejor que ellos para conocer las denominaciones más corrientes en la profesión o en el medio en cuestión. La superioridad del traductor de oficio está tan sólo en el aspecto lingüístico.* (LERAT, 1997: 109)

## OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Agirre Berezibar, J. M. (1997) *Zuzentzaileen zeregina administrazioko itzulpengintzan*, SENEZ itzulpen aldizkaria, 19. zenbakia, 115–126.
- Didier, E. (1990) *Langues et Langages du Droit*, Wilson & Lafleur Ltée, Montreal.
- Lerat, P. (1997) *Las lenguas especializadas* (Albert Ribasen itzulpena), Ariel Lingüística (Ariel argitaletxea), Bartzelona.
- Lobera, A.(1997) *Itzulpena auzitegietan eta Administrazioan*, SENEZ itzulpen aldizkaria, 19. zenbakia, 81–100.
- Lobera, A. eta Urrutia A. (1997) *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, 2. argitaraldia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Sarcevic, S. (1997) *New Approach to Legal Translation*, Kluwer Law International, Haga.
- Urrutia, A. (1994) *Euskal hiztegi juridikoa*, Euskaltzaindiaren XIII. biltzarra, Leioa, 1279–1298.
- Wroblewsky, J. (1988) «Les langues juridiques: une typologie», *Droit et Société* 8, 13–27.







\*\*\*\*\*

## LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

### **Terminología, itzulpena eta diskurtso juridikoa: euskararen kasua**

Testu juridikoen itzulpenari ekiteko, ezinbestekoa da terminologia bera lantzea. Euskararen kasuan beharizan hori areagotu egin da, esparru horretan gure hizkuntzaren egoera ez baita primerakoa, ezta hurrik eman ere.

Bada, azken urteotako lanaren xedea izan da testu berean behar bezala uztartzea itzulpengintzaren arloan azaltzen diren eginkizun desberdinak, alegia, terminologia egokia erabili (hizperrien bitartez nahiz beste teknika batzuen bitartez), euskarak “etxeratu” behar duen sistema juridikoa bere luze-sakonean ezagutu (Espainiako Zuzenbidea, Frantziako Zuzenbidea, Europako Erkidegoen Zuzenbidea) eta osagai horiek guztiak artez antolatzea azken testu batean. Hori bete-betean lortuz gero, euskarazko “diskurtso juridikoa” moldatuko genuke.

Xede hori iristeko, 1994. urteaz geroztik, Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidearen inguruko testu doktrinalak itzultzen dihardugu. Esperientzia horretan izandako zailtasunak eta, halakorik izanez gero, lorpenak ere azaldu nahi ditugu. Jarraikoak izango dira, gorago esan bezala, azterketa horren ardatz: emaitza gisa, diskurtso juridiko zuzena eta kalitatezkoa, Zuzenbidearen ikusmiratik eta linguistikaren ikuskeratik ere; eta diskurtso hori itxuratzeko abiaburu gisa, terminologia eta itzulpena.

### **La terminología, la traducción y el discurso jurídico desde el punto de vista del euskera**

Para la traducción de textos jurídicos es totalmente necesario el estudio de la terminología y en el caso del euskera esa necesidad es aún más acentuada, ya que en el ámbito jurídico nuestra lengua no se encuentra todavía en una buena situación.

Así pues, durante estos últimos años el objetivo de nuestro trabajo ha sido lograr la confluencia en un mismo texto, por un lado, de las diferentes técnicas en el campo de la traducción (utilización de terminología adecuada, creación de nuevos términos), y, por otro lado, del conocimiento en profundidad de los sistemas jurídicos que el euskera tiene que asimilar (el Derecho español, el francés y el de las Comunidades Europeas). Una vez organizado todo ello correctamente en un mismo texto, conseguiríamos amoldar el “discurso jurídico” del euskera.

Para poder alcanzar ese objetivo en la Universidad de Deusto venimos traduciendo textos doctrinales del campo del Derecho desde 1994 y queremos expresar las dificultades que hemos tenido a lo largo de estos años y, así mismo, también los logros conseguidos, si es que realmente los ha habido. Los ejes de nuestro estudio, tal y como hemos indicado más arriba, son los siguientes: lograr un discurso jurídico correcto y de calidad, tanto desde el punto de vista del derecho como del lingüístico, utilizando la traducción y la terminología en la configuración de dicho discurso.

### **La terminologie, la traduction et le discours juridique du point de vue de l'euskera**

Pour la traduction de textes juridiques l'étude de la terminologie est absolument nécessaire et, dans le cas de l'euskera ce besoin est encore plus accentué car, dans le domaine juridique notre langue ne se trouve pas encore dans une bonne situation.

Ainsi donc, durant ces dernières années l'objectif de notre travail a été d'obtenir la confluence dans un même texte, d'une part, des différentes techniques dans le domaine de la traduction (utilisation de la terminologie adéquate, création de nouveaux termes) et, d'autre part, de la connaissance en profondeur des systèmes juridiques que l'euskera doit assimiler (le Droit espagnol, le Droit français et le Droit des Communautés Européennes). Une fois que tout cela sera organisé correctement dans un même texte, nous parviendrons à adapter le "discours juridique" de l'euskera.

Pour pouvoir atteindre cet objectif, à l'Université de Deusto nous sommes en train de traduire des textes doctrinaux du domaine du Droit depuis 1994 et nous voulons exprimer les difficultés que nous avons eu au long de ces années et, également, les réussites obtenues, si il y en a eu réellement. Les axes de notre étude, comme nous l'avons indiqué ci-dessus, sont les suivantes: parvenir à un discours juridique correct et de qualité, aussi bien du point de vue du droit que du point de vue linguistique, en utilisant la traduction et la terminologie dans la configuration de ce discours.

### **Terminology, translation and legal discourse from the viewpoint of the Basque language**

For the translation of legal texts it is absolutely necessary to study terminology. In the case of Basque the need is even greater, as our language is not in a good situation in the field of law.

In recent years we have therefore worked to bring together in a single text the different translation techniques (use of adequate terminology, creation of new terms) and an in-depth knowledge of the legal systems which Basque must assimilate (Spanish, French and EU law). Once all this is correctly organised in a single text we can mould the "legal discourse" of Basque.

To attain this goal we have been translating doctrinal texts in law at the University of Deusto since 1994. We wish to indicate the difficulties we have had over the years and also our achievements, if there can be said to be any. As indicated above, our study is based on the following: achieving a correct, high-quality legal discourse from the viewpoints of both law and linguistics, using translation and terminology to configure that discourse.

## 1. eranskina

Terminoa	Espezialitate	Testuingurua	Saila	Erregistro zenbakia	Jasoketa data	Esanahia	Euskarazko baliokidea	Aholkulariak	Itzul
Depositante	Zuz oro	Depositante es quien entrega la cosa depositada y adquiere el crédito a exigir su custodia y su restitución	2.4.36.739	5770	95/11/22	6.132: Nork bere gauza beste bati ematen diona, azken horrek gauza eduki eta zain dezan	GORDAILUGILE. 50.137/5.382: gordailugile; 2.466: gordailugile, gordailutzaile, gordailari; 8.581: ezarle, ezartzaille, ezarlari		Es

## 2. eranskina

Terminoa	Espezialitatea	Testuingurua	Saila	Erregistro zenbakia	Jasoketa data	Esanahia	Euskarazko baliokidea	Aholkulariak	Itzulpena
Anulaci3n	Zuz oro	... el posible control judicial de la anulaci3n y el r3gimen de responsabilidades...	1.1.1.135	1302	94/05/05	20: deuseztakorra deusez bilakatzeko egintza	DEUSEZTAPEN: 1.36; 47.202: deuseztapen; 2.429: deuseztapen	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Esther...
Rescisi3n	Zuz oro	Las dem3s acciones de ineficacia de los contratos la anulabilidad o rescisi3n, se rigen por...	2.1.12.368	1744	94/07/11	20: deuseztakorra deusez bilakatzeko egintza	HUTSALKETA: 1.347; 2.562: deuseztapen; 3.908: ezeztapen, ezeretze, hauspen; 8.1556: auste, urratze, ezeztatze, utsalketa; 65.544: ezeztapen, ezeretze, hutsalketa, hausketak 64.574: deusezte, deuseztatze, deuseztapen	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Esther...
Revocaci3n	Zuz oro	el TS hab3a aceptado la revocaci3n directa de las licencias ganadas por silencio cuando...	1.1.4.116	2671	94/08/02	6.354: hacer ineficaz un contrato v3lidamente celebrado y obligatorio en condiciones normales	EZEZTAPEN: 1.436; 2.564: kontraerabakitze, errebozazio; 47.234: ezeztatze	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Esther...
Resoluci3n	Zuz oro	La Adm. ostenta, asimismo, el poder de resoluci3n del contrato de forma directa y sin necesidad de recurso al juez...	1.1.8.289	4134	95/03/03	6.361: acto jur3dico que deja sin efecto otra anterior por la voluntad del otorgante	SUNTSIARAZPEN 1.364; 2.562 Suntsierazte, irauterazte	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Esther...
Nulidad	Zuz oro	...al venir impuesta por una norma imperativa, implica la nulidad radical del acto de contravenci3n	2.1.5.147	522	94/05/05	20: sortzen den momentutik baliobakoa dena	DEUSEZTASUN: 1.275; 2.530: deusez, nulu; 47.228: deuseztasun; 64.461: baliogabetasun, baliorki eza; 65.420: deuseztasun; 11.241: deuseztasun	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Esther...
Anulabilidad	Zuz oro	El cuentacorrentista podr3 ejercitar las acciones de nulidad, anulabilidad, rescisi3n o resoluci3n...	3.1.53.840	8171	96/05/21	20: judizioan deuseztapena eskatu arte, eragin-kortasuna duena	DEUSEZTAKORTASUN: 1.32, 11.241; 2.429: deuseztagarritasun, anulagarritasun; 65.36: deuseztakortasun	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Esther...



## 3. eranskina

Terminoa	Espezialitate	Testuingurua	Saila	Erregistro zenbakia	Jasoketa data	Esanahia	Euskarazko baliokidea	Aholkulariak	
Inscripción	Zuz oro	... el nombre se hará constar en la inscripción de nacimiento	2.1.3.109	1392	94/06/29	6.219: asiento principal, definitivo y de carácter positivo, sustantivo y estable	INSKRIPZIO: 3. 7931, 1.227; 2.506: inskripzio, izenemate; 11.94: inskripzio; 47.223: izena emate; 64.366: izena emate, inskripzio; 65.332: izena emate, inskripzio	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Id
Anotación preventiva	Zuz oro	... una vez que se haya llevado a efecto su embargo y anotación preventiva...	1.1.5.174	3200	94/11/23	20: Erregistroan behin-behinean egindako idazpena, gainontzekoak ez kaltetzeko.	AURREARRETAZKO IDAZTOHAR: 1.30; 2.429 Prebentzio(z)ko ohar(pen), ohar(pen) prebentibo.	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Id
Nota marginal	Zuz oro	... dan lugar, dentro del Registro Civil, a distintos asientos, inscripciones, anotaciones y notas marginales...	2.1.4.135	440	94/05/04	20: Erregistroaren folioetako ezkerrean, oharrak erantzeko bidea.	BAZTERREKO OHAR: 1.274; 2.530: albo-ohar, marginako ohar	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Et
Cancelación	Zuz oro	... son los siguientes: inscripciones, anotaciones, notas marginales, indicaciones, menciones y cancelaciones	2.1.7.212	947	94/05/23	20: zerbait baliorik gabe geratu dela Erregistroan adierazteko erabiltzen den idazpena	KITAPEN. 1.66; 2.440: deuseztapen; 3.657: ezeztapen, kitatze; 8.338: ezereztu, ezeztatu, ezereztatu, indargetu; 65.88: deuseztapen, ezeztapen, kitapen; 64.109: deuseztapen, indargabetze, baliogabetze, ezeztapen, bertan behera uzte	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Et
Indicación	Zuz oro	... son los siguientes: inscripciones, anotaciones, notas marginales, indicaciones, menciones y cancelaciones	2.1.7.212	946	94/05/23	20: Erregistroan informazio zehatz bat emateko egiten den idazpena	ADIERAZPEN; 8.1015: itarantzun, ohar, oharketa, oharpen, oharpide, oharkizun; 3.789: ohar, seinale, ezaugarri, marka; 65.adierazpen, azalpen; 64.359: ohar, argibide, aipamen	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Et
Mención	Zuz oro	... son los siguientes: inscripciones, anotaciones, notas marginales, indicaciones, menciones y cancelaciones	2.1.7.212	948	94/05/23	6.261: mera alusión o indicación de la existencia de alguna carga, gravamen o derecho real inmobiliario	AIPAMEN. 1.317: aipatu; 64.429: aipamen; 65.387: aipamen, aipu, aipaldi; 2.525: aipamen, aipu	Anjel Lobera / Andres Urrutia	Et